



Enpresaren esku-hartze plana Koronabirus COVID-19 gaitza dela-eta

Helburua

Hasierako helburua gaitzaren zabalkundeari eustea da. Birusa ez dago oraindik ere haren zabalkundea eragotzi ezin izateko bezain hedatua eta, gaitzaren ezaugarriak kontuan hartuta (larritasun moderatua, urtaroko gripea baino heriotza-tasa handixeagoa), **helburua haren zabalkundea prebenitzea da.**

Zer neurri har daitezke enpresatik?

- Pandemia batek irauten duen bitartean norberaren gaitzarengatik edo familiako norbaiten edo norbaitzuen gaitzarengatik lanera joaten ez diren enplegatuen absentsiarako **prestatu**.
- **Pertsonen arteko kontaktuen** maiztasuna eta moduak aldatzeko arauak ezarri.
- **Gripearean aurkako txertaketarako** Osasungintzako Agintariek ezarritako urteroko gomendioei kasu egin.
- Langileen beren lana **etxetik** edo **ordutegi malgu batez** egin ahal izateko prozedurak baloratu.
- **Kutsatzea kontrolatzeko materiala** ezarri (eskuen higienarako produktuak eta abar).
- **Pandemiaren zabalkundea prebenitzeko oinarrizko informazioa** daukaten programak eta materialak ezarri eta zabaltu.
- **Langileak informatuta** eduki enpresan egiten diren esku-hartzeei buruz. **Izua eta antsietatea prebenitu.**





Prestatuta al zaude zure enpresan Koronabirus COVID-19 gaitzaren eraginari aurre egiteko?

- **Koordinatzaile bat** eta talde bat **izendatu**, haren barruan izango delarik Laneko Arriskuen Prebentzio Zerbitzua, funtzio eta erantzukizun ondo definituekin. Talde horrek **esku-hartze plan espezifiko**a landu eta eguneratuko du.
- **Eguneratutako informazioa bilatu**.
- Landu eta aldiro eguneratu larrialdi kasuetarako **komunikazio plan bat**. Plan horretan sartu behar dira kontaktatzeko pertsonen izenak (ordezkoen izenekin) eta komunikazio sare bat (hornitzaileak eta bezeroak barne direla).
- **Plana probatu** simulakroen bidez, eta aldiro eguneratu.

Intereseko informazioa koronabirusa prebenitzeko

Garrantzitsua da iturri ofizialak **SOILIK** kontsultatzea. Gaitzari buruzko informazio eguneratua aurkitzeko aukera eman diezaguketen guneak.

Osasun, Kontsumo eta Ongizate Ministerioaren lotura




Orri honetan etengabe eguneratutako informazioa aurkitu dezakezu.

- **COVID-19ari buruzko galderak eta erantzunak**
- **Arrisku guneetatik etorritako bidaiarientzako aholkuak**
- **Arrisku guneetara joatekoak diren bidaiarientzako aholkuak**



Kasu zehatzetarako esku-hartzeen diagrama

Jarraibide hauek **orientagarriak** dira, eta etengabe berritu daitezke.



GARRANTZITSUA BETI

Informazio iraunkorra enpresaren eta langileen artean.




Eskuen garbiketa




Prozesu osoaren iraupena: **40-60 segundu.**

0



Busti itzazu eskuak urez.

1




Har ezazu eskuan zabaltzeko adina xaboi.

2




Igurtzi esku-ahurrak bata bestearen kontra.

3



Igurtzi eskuineko esku-ahurra ezkerreko eskuigainaren kontra, hatz arteak ere igurtziz, eta alderantziz.

4



Igurtzi esku-ahurrak bata bestearen kontra, hatzak hatz artean sartuz.

5




Igurtzi hatzen gainaldea beste esku-ahurrekin, hatzei helduz.

6




Igurtzi ezkerreko erpurua, biratze mugimenduen bidez, eskuin eskuarekin, eta alderantziz.

7



Igurtzi eskuineko hatz muturrak ezkerreko esku-ahurraren kontra, biratze mugimenduak eginez, eta alderantziz.

8




Uretan pasa itzazu eskuak.

9




Lehortu itzazu ongi erabilpen bakarreko eskuoihalaz.

10



Balia ezazu eskuoihala kanila ixteko.

11



Orain zure eskuak seguruak dira.



Eskuen garbitasuna




Prozesu osoaren iraupena: **20-30 segundu.**

1a




Jarri esku-ahurrean tratatu beharreko gainazal guztiak estaltzeko adina produktu-dosi.

1b




2




Igurtzi esku-ahurrak bata bestearen kontra.

3




Igurtzi eskuineko esku-ahurra ezkerreko eskuigainaren kontra, hatz arteak ere igurtziz, eta alderantziz.

4



Igurtzi esku-ahurrak bata bestearen kontra, hatzak hatz artean sartuz.

5




Igurtzi hatzen gainaldea beste esku-ahurrarekin, hatzei helduz.

6




Igurtzi ezkerreko erpurua, biratze mugimenduen bidez, eskuin eskuarekin, eta alderantziz.

7



Igurtzi eskuineko hatz muturrak ezkerreko esku-ahurraren kontra, biratze mugimenduak eginez, eta alderantziz.

8



Lehortu ondoren, zure eskuak seguruak dira.

